



# **DERIOKO UDALEKO EUSKARA PLANA**

**UDAL BARRUKO ERABILERA PLAN  
ESTRATEGIKOA: 2018-2022**

**PLAN DE EUSKERA DEL  
AYUNTAMIENTO DE DERIO**

**PLAN ESTRATÉGICO DE USO INTERNO:  
2018-2022**

## AURKIBIDEA / ÍNDICE

1.- <b>Sarrera</b> / Introducción.....	3
2.- <b>Testuingurua eta aurrekariak</b> / Contexto y antecedentes.....	3
3.- <b>VI. Plangintzaldiaren alderdi nagusiak</b> / Principales aspectos del VI. Período de Planificación.....	5
3.1.- <b>Euskara normalizatzeko plana</b> / Plan de normalización lingüística.....	5
3.2.- <b>Plangintzaldi berriaren oinarriak</b> / Bases del nuevo período de planificación.....	8
4.- <b>Diagnostikoa eta helburuak</b> / Diagnóstico y objetivos.....	14
4.1.- <b>Diagnostikoa</b> .....	15
4.2.- <b>Helburuak</b> / Objetivos.....	22
5.- <b>Derioko langileak eta atalak</b> / Personal trabajador y áreas administrativas.....	26
6.- <b>VI. Plangintzaldirako hizkuntza irizpideak</b> / Criterios lingüísticos para el VI. período de planificación.....	31
6.1.- <b>I. ERANSKINA: Kontratazio baldintza-agirietan sartu beharreko hizkuntza-baldintzak</b> / Cláusulas lingüísticas a insertar en los pliegos de condiciones.....	43
6.2.- <b>II. ERANSKINA: Diru-laguntzak eta baimenak emateko hizkuntza-baldintzak</b> / Cláusulas lingüísticas para la concesión de subvenciones y permisos.....	49

## 1.-SARRERA

Erabilera Plan baten helburu nagusia, izenak berak dioen bezala, erabilera eragitea da. Euskararen erabilera normalizatu nahi da, eta horretarako ahozko nahiz idatzizko jardunetan, ezinbestean, euskarari arnas guneak bilatu behar zaizkio.

Dokumentu honetan VI. Plangintzaldiari dagokion Euskararen Plan Estrategikoa jasotzen da, 2018-2022 bitartean indarrean egongo dena.

Plan estrategikoak bost urteko plangintzaldirako helburuak jasoko ditu. Horrez gain, aurreko planetan ez bezala, urtero kudeaketa plan bat onartuko da, ekintza zehatzak finkatuko dituena.

Hasteko, 2018-2022rako egitasmo honen testuingurua agertuko dugu eta aurrekariari berri emango dugu.

Ondoren, plangintzaldi honen alderdi nagusiak jasoko ditugu: Bikain ziurtagiria, plan estrategikoa, kudeaketa plana...

Laugarren atalean Derioko udal administrazioaren diagnostikoa eman ostean plangintzaldi berrirako helburuak zehaztuko ditugu.

Bosgarren atalean Derioko udaleko langileen zerrenda, derrigortasun-datak eta abarrikatu ditugu.

Amaitzeko, eguneroko lanean kontuan izango ditugun hizkuntza-irizpideen berri zehatza emango dugu. Kontratu berrietan sartu beharreko hizkuntza-klausulak ere jasoko ditugu. Azkenik, diru-laguntzak eta baimenak emateko orduan erabiliko diren hizkuntza-baldintzak dakartzagu hona.

## 2.-TESTUINGURUA ETA AURREKARIAK

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak diotenarekin bat, euskara Euskal

## 1.-INTRODUCCIÓN

Como su nombre indica, el principal objetivo de un Plan de Uso es impulsar su uso. Se trata de normalizar su uso, y para ello, necesariamente, hay que buscarle espacios tanto en nuestras comunicaciones orales como escritas.

El presente documento recoge el Plan Estratégico correspondiente al VI período de planificación, el cual estará en vigor entre los años 2018 y 2022.

Dicho Plan Estratégico dará cuenta de los objetivos para el período de planificación de cinco años. Además, a diferencia de otros planes anteriores, anualmente se aprobará un plan de gestión que establecerá actividades concretas a acometer.

Para comenzar, explicaremos el contexto de esta propuesta para 2018-2022 e informaremos de los precedentes.

A continuación, recogeremos los aspectos principales de este período de planificación: certificado Bikain, plan estratégico, plan de gestión...

En el cuarto apartado, tras presentar el diagnóstico de la administración del Ayuntamiento de Derio se detallarán los objetivos del nuevo período de planificación.

En el quinto apartado, se mostrará la relación de puestos de trabajo del ayuntamiento de Derio, las fechas de preceptividad, etc.

Finalmente, daremos cuenta detallada de los criterios lingüísticos a tener en cuenta en nuestra labor diaria. También recogeremos las cláusulas lingüísticas a insertar en los nuevos contratos. Por último, traeremos las condiciones lingüísticas aplicables en las subvenciones y permisos.

## 2.-CONTEXTO Y ANTECEDENTES

Conforme a lo establecido en la ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, y en la Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca, el euskera es la lengua

Herriko berezko hizkuntza da, eta euskara eta gaztelania dira Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetako hizkuntza ofizialak. Hortaz, erkidegoko herritar guztiek badute euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea; herri administrazioek –eta bereziki, toki-administrazioek eta haien menpeko erakunde publiko guztiek–, berriz, bi hizkuntzok erabiltzea bermatu behar dute administrazioaren barruko zein kanpoko harremanetan.

Gorago aipatutako lege horietan xedatutakoaren arabera, **1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak**, araubidezko marko orokorra ezartzen du, euskal herri-administrazioek euskararen erabileraren normalkuntzaren eremuan egin beharreko lanari buruz. Lan horretan bete behar diren gutxieneko baldintzak, plangintza aldiak eta epeak arautzeaz gain, dekretuak bost urtealdirako planak egitea aurreikusten du, plan horietan jaso behar baitira, aldi bakoitzerako, dekretuak xedatzen dituen esparru guztietan aurreikusitako neurriak.

Oraingo honetan, aurreko plangintzaldian (2013-2017) bezala, oso kontuan hartuko ditugu **Hizkuntza-Irizpideak**. Plan estrategiko honetan ere jasotzen ditugu, baina zenbait aldaketekin.

V. Plangintzaldiko euskara planak abian jarri dituen eginkizunei segida ematen zaie 2018-2022ko Euskara Plan honetan. Aurreko plangintzaldian ezarritakoak indartzea eta jarraipena egitea izango dira planaren erronka nagusiak.

V. Plangintzaldian (2013-2017) helmuga bat ezarri zen: euskara ere herri-administrazioetako jarduneko *ohiko lan-hizkuntza* izatea. Datuek erakusten dutenez, herri-administrazioek neurri handi batean bermatzen dituzte herritarrekiko euskarazko komunikazioak; era berean, prestatuta daude, gehiago edo gutxiago, euskaraz lan egiteko; alabaina, oraindik ere gaztelania da lan-hizkuntza nagusia, eta handia da itzulpenekiko mendekotasuna. Guztiarekin

propia de Euskal Herria, y el euskera y el castellano son las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca. Atendiendo a esa condición, la ciudadanía de dicha comunidad tiene el derecho a utilizar ambas lenguas en sus relaciones con las administraciones públicas. Y corresponde a las administraciones públicas —en especial, a las entidades locales y sus organismos autónomos, por su proximidad a la ciudadanía— garantizar el uso de las lenguas oficiales en las relaciones tanto internas como externas de la administración.

En desarrollo de lo dispuesto en las citadas leyes, el **Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca**, establece el marco reglamentario general en el que debe desarrollarse la actividad de las administraciones públicas en materia de ordenación de la normalización del uso del euskera. Además de los requisitos mínimos, períodos, ritmos y plazos, el decreto prevé elaborar planes quinquenales en los que deben recogerse el conjunto de medidas previstas para la aplicación de lo establecido en el decreto.

Al igual que el último período de planificación tendremos muy presentes los **Criterios Lingüísticos** que se incluyen con ciertas modificaciones en este Plan Estratégico.

En este Plan de Euskera para el periodo 2018-2022 se quiere dar continuidad a las dinámicas impulsadas en el V periodo de Planificación. Por ello, los principales retos de este nuevo plan serán reforzar realizar un seguimiento a lo establecido hasta la fecha.

En el V Período de Planificación (2013-2017), se estableció un objetivo nítido: que el euskera fuera también *lengua habitual de trabajo* en las administraciones. Los datos muestran que las administraciones garantizan en gran medida la comunicación en euskera con la ciudadanía; asimismo, están capacitadas para trabajar, en cierta medida, en euskera; sin embargo, todavía el castellano es la lengua de trabajo principal, y existe una fuerte dependencia de la traducción. A pesar de todo, durante ese último

ere, azken plangintzaldi horretan ibilbide polita egin da bai administrazioen arteko elkarlana areagotzeko, bai normalizazioaren kudeaketaren gaineko gogoeta sakona egiteko.

VI. Plangintzaldira iritsi gara, eta plangintzaldi hau, oroz gainera, euskararen erabilera modu eraginkorragoan bideratuko duen kudeaketa eredu berriaren plangintzaldia izango da, aurrerago azalduko dugun bezala. Euskararen kudeaketak erakundearen kudeaketa orokorraren barruan egon behar du txertatuta: ezin daiteke geratu kudeaketa orokorretik kanpo. Aldi berean, erakundearen helburu nagusiek uztartuta egon behar dute euskararen erabileraren normalizazioarekin, ondo lerrotatuta, prozesua arrakastatsua suertatuko bada. Era berean, Erreferentzia Marko Estandarra, Bikain ziurtagiriaren ebaluazio-sistema eta erakundearen arteko koordinazioa, osatzen dute plangintzaldi berri honetarako oinarriak.

### **3.- VI. PLANGINTZALDIAREN ALDERDI NAGUSIAK**

Atal honetan Plangintzaldi honen bizkarrezurra osatuko duten elementu nagusiak aipatuko ditugu; batetik, plan estrategikoa eta kudeaketa planak onartzeko arrazoiak emango ditugu, baita behar bezalako ebaluazioa egiteko beharra ere; bestetik, plangintzaldi honen oinarriak zerrendatuko ditugu.

#### **3.1.-Euskara Normalizatzeko plana**

“Erabilera plana” kontzeptuaren barruan, bi plan ezberdin bereizi daitezke: plangintzaldi osorako plan estrategikoa eta urteko kudeaketa plana.

#### **Bikainen ebaluazioko Erreferentzia Marko Estandarra**

Orain arteko plangintzaldietan, herri-administrazio bakoitzak bere plan eredu propioa erabili izan du; are gehiago, terminologia ere aldatu izan da toki batetik bestera: “erronka, esparrua, helburu estrategikoa, helburu zehatza, ekintza...”.

período de planificación se han registrado avances notables tanto en el desarrollo de la cooperación entre las administraciones como en la reflexión acerca de la gestión de la normalización.

Hemos alcanzado el VI Período de Planificación, que ha de ser, ante todo, el del nuevo modelo de gestión que ha de encauzar de manera más efectiva el uso del euskera, como se precisará más adelante. La gestión del euskera en la entidad ha de inscribirse en el marco de la gestión general de la misma: no puede quedar fuera de su gestión global. Al mismo tiempo, si se pretende que el proceso resulte exitoso, los objetivos generales de la institución han de establecerse en consonancia, y perfectamente alineados, con la normalización del uso del euskera. Igualmente, el Marco de Referencia Estándar así como el sistema de evaluación del certificado Bikain y la coordinación interinstitucional constituyen los cimientos de este nuevo período de planificación.

### **3.-PRINCIPALES ASPECTOS DEL VI. PERIODO DE PLANIFICACIÓN**

En este apartado daremos cuenta de los principales elementos que conforman la columna vertebral de este período de planificación: por un lado, se presentarán las razones de contar con un plan estratégico y distintos planes de gestión, así como de subrayar la necesidad de hacer una evaluación adecuada; y, por otro lado, enumeraremos los fundamentos de este período de planificación.

#### **3.1.-Plan de Normalización lingüística**

Dentro del concepto «Plan de uso» se pueden distinguir dos planes diferenciados: el plan estratégico para el conjunto del período de planificación, y el plan de gestión anual. Comencemos por el plan estratégico

#### **Marco de Referencia Estándar de la evaluación Bikain**

Hasta la actualidad, en todos los periodos de planificación, cada administración, y cada empresa pública o privada ha hecho uso de su propio modelo de plan; es más, hasta la propia terminología ha variado de un organismo a otro: «reto, ámbito, objetivo estratégico,

Aniztasun horretaz ohartuta eta koordinazio beharra aintzat hartuta, VI. Plangintzaldi honetarako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) erabilera plan eredu bat diseinatu du, Bikaineko Erreferentzia Marko Estandarrera (EME) lerrokatua.

Bikaineko EMEarekin lerrokatuta egoteak aukera ematen du erakundeek, elementu eta adierazle berberetan oinarriturik, planifikazioa egiteko eta beroriei erreparatuz ebaluazioa egiteko.

Maiatzaren 30eko 162/2017 DEKRETUAK, Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria arautzen du. Baina BIKAIN ez da ziurtagiri hutsa, ebaluazioa tresna ezin hobea ere bada, enpresa eta erakundeetan euskararen kudeaketak eta erabilerak dituzten ahuleziak eta indar-guneak atzemateko, eta, ebaluazio horietan oinarrituta, euskararen erabilera indartzeko.

Oraingo Euskara Planean, bi zati bereiziko ditugu: batetik, Plan Estrategikoa, eta bestetik Kudeaketa Plana.

### **Plangintzaldirako Plan estrategikoa**

Plan batek ezinbestekoa du helburu eta adierazle jakin batzuk finkatzea. Ikuspegi orokor hori marko orokor batek emango dio, eta hori da hain zuzen ere Plan estrategiko bat. Horixe jasotzen da dokumentu honetan. Laugarren atalean, diagnostikoaren ostean, helburu eta adierazle horien berri emango dugu.

### **Urteko Kudeaketa planak**

Lehen esan dugun bezala, HPSk diseinatutako plan bateratuan plan estrategikoarekin batera, urteko kudeaketa planak dira normalizazio prozesuaren bizkarrezurra. Plan estrategikoa diseinatzerakoan, erakunde bakoitzak aztertuko du non dagoen eta aurreikusiko du non egon nahi duen, bere helburuak lortzeko.

objetivo específico, acción, iniciativa...» son términos que se repiten en todos los planes, pero con significados diferentes en no pocas ocasiones.

Conscientes de esa pluralidad y teniendo presente la necesidad de coordinación, la VPL ha diseñado un plan modelo para este VI Período de Planificación, en consonancia con el Marco de Referencia Estándar (EME) de Bikain.

La alineación con el EME de Bikain les permite a las entidades planificar y evaluar basándose en los mismos elementos e indicadores.

El DECRETO 162/2017, de 30 de mayo, por el que se regula el Certificado de Calidad en la Gestión Lingüística Bikain. Pero BIKAIN va mucho más allá de una mera certificación: la evaluación Bikain es una herramienta excelente, tanto para detectar los puntos a mejorar y los puntos fuertes que tiene en las empresas e instituciones la gestión y el uso del euskera como para, partiendo de dichas evaluaciones, promover el uso del euskera.

En el presente Plan de Euskera, por lo tanto, haremos distinción de dos partes: por un lado, el Plan Estratégico y, por otro, el Plan de Gestión.

### **Plan Estratégico del Período Planificación**

Un Plan, necesariamente ha de establecer inicio ciertos objetivos e indicadores. Esa visión global se la dará un marco general, y eso es precisamente un Plan Estratégico. Eso mismo es lo que se recoge, fundamentalmente, en el presente documento. En el apartado cuarto, tras el diagnóstico, daremos cuenta de los objetivos e indicadores del presente Plan.

### **Planes de Gestión anuales**

Como ya se ha adelantado, en el plan unificado diseñado por la VPL los planes de gestión anual constituyen, junto al plan estratégico, la columna vertebral del proceso de normalización. A la hora de diseñar el plan estratégico, cada entidad ha analizado dónde se encuentra y ha definido adónde quiere llegar para lograr sus objetivos. La conclusión salta a

Argi dagoena zera da: zenbat eta aurrerapen handiagoa aurreikusi, orduan eta ekintza gehiago jarri beharko ditu abian.

Erakunde batek urtero-urtero martxan jartzen dituen ekintza horiek (bost urteko plan estrategikoan ezarritako helburuak betetzekoak) urteko kudeaketa planean jaso behar dira. Hori dela eta, batzuek kudeaketa planari "ekintza plana" ere deitzen diote; izan ere plan horietan ekintza zehatzak ezartzen dira: nork zer egingo duen eta noizko.

Plan estrategikoarekin gertatzen den bezala, urteko kudeaketa plana kasuan kasuko administrazio-atalak onartu, kudeatu eta ebaluatu egin behar du; dena dela, zerbitzu edo atal bakoitzean kudeatu (landu, gauzatu eta ebaluatu) beharko dira urteko planeko helburuak, ahalik eta jende gehienaren partaidetzarekin. Horixe egingo dugu Derioko udalean urte bakoitzaren hasieran.

### **Kudeaketa aurreratua**

Gainera, kudeaketa aurreratuan dagoen eredia kontuan izanik, kudeaketa aurreratuko edozein programak erabat integratu behar du zehar-lerro diren gaien kudeaketa (euskararena, kasu) kudeaketa orokorrean. Kudeaketa erakundeko ordezkari zein arduradunen erantzukizuna izango da, ez hizkuntza normalizaziorako teknikariarena, zeinak koordinazio eta aholkularitza lanak egin beharko baititu aurrerantzean.

### **Erabilera planaren ebaluazioa**

Gorago esan dugun bezala, Plangintzaldi bakoitzaren amaieran egiten den diagnostikoak Planaren ebaluazio gisa har genezake, baita hurrengo plana diseinatzeko abiapuntutzat ere.

Horrez gain, aurrerago azalduko den bezala, Euskara Planaren Jarraipen batzordearen eginkizunetako bat izango da planak jasotzen dituenak ebaluatzea: Plan estrategikoan dauden hizkuntza-irizpideak, urteroko kudeaketa plana, eta abar.

la vista: cuanto mayor sea el avance previsto, más serán las acciones que habrán de ser puestas en marcha para lograrlo.

Las acciones que anualmente pone en funcionamiento cada entidad (para cumplir los objetivos marcados para el quinquenio) han de quedar recogidas en el plan de gestión anual. Por ello, hay quienes también llaman al plan de gestión «plan de acción», ya que en dichos planes se establecen las acciones específicas: quién ha de hacer qué y para cuándo.

Como sucede con el plan estratégico, el plan de gestión anual ha de ser aprobado, gestionado y evaluado por la unidad administrativa correspondiente; en cualquier caso, los objetivos del plan anual deberán ser gestionados (elaborados, ejecutados y evaluados) en el servicio o área correspondiente, con la participación del mayor número posible de personas implicadas. Eso será lo que llevaremos a cabo al comienzo de cada año.

### **Gestión avanzada**

Además, tomando en consideración el modelo existente, cualquier programa de gestión avanzada ha de integrar plenamente la gestión de temas transversales (como la del euskera) en la gestión global. Así, la gestión de temas transversales como el de la lengua será responsabilidad de las y los representantes y responsables de la institución, y no de la/el técnico de normalización lingüística, cuyo cometido, de aquí en adelante, se centrará en la coordinación y asesoramiento.

### **Evaluación del plan de uso**

Como ya se ha apuntado, el diagnóstico que se realiza al final de cada Período de Planificación se puede tomar como una evaluación del Plan, así como de punto de partida a la hora de diseñar el siguiente plan.

Además de todo ello, como se detallará más adelante, una de las funciones de la comisión de seguimiento del Plan de Euskera es la de evaluar la marcha del plan en vigor: los criterios lingüísticos incluidos en el plan estratégico, el plan de gestión anual, etc.

### **3.2.-Plangintzaldi berriaren oinarriak**

Plangintzaldi honetan funtsezkoak izango diren elementuak aipatuko ditugu labur-labur.

#### **Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak**

Gure administrazioan hizkuntzen erabilera arautzea edo finkatzea funtsezkoa da. Aurreko Plangintzaldian, Planaren eranskin modura, horretarako irizpideak jaso ziren, eta oraingo Plan honetan ere, zenbait aldaketa eginda, sartu ditugu gure administrazioaren hizkuntza-jardunaren oinarria ezartzen dutelako. Irizpide horiei hizkuntza-irizpideak ere deitu izan zaie. Azken batean, administrazioak ele bietan jardun dezan, behar-beharrezkoa da langile, atal eta sail bakoitzak jakitea zein egoeratan erabili behar dituen bi hizkuntza ofizialak, alegia, noiz, zer eta norekin egin behar duen euskaraz edo gaztelaniaz.

Hizkuntza-irizpide horietan Kontratazio-irizpideak ere jasotzen dira. Horren helburua da kontratazio-organo guztiek, kontratuak burutzean, nahitaez sartzea bete behar diren hizkuntza-baldintzak, herri-administrazio kontratuetako karatuletan eta berariazko klausula administratiboen plegetan.

#### **Etorri berrientzako protokoloak**

Jakina da Herri-administrazioiko langileon batez besteko adina altua dela eta datozen urteotan langile berri asko sartuko direla gurekin lan egitera.

Etorrera hori aukera paregabea izan daiteke azkeneko hamarkadan sustatzen ari garen euskararen erabilera indartzeko, ez soilik zerbitzu-hizkuntzari dagokionez, baizik eta, batez ere, lan-hizkuntzaren eremuan aurrerapauso sendoagoak eman ditzagun. Logikak diosku gugana etorri behar diren gehienak edadez gazteagoak izango direla, eta hortaz, euskarazko hezkuntza ereduetan ikasitakoak. Bestela esanda, euskara gaitasun handiko jendea etortzea aurreikusten da; hori dela eta, oinarriak ezarri beharko genituzke pertsona horiek administrazioan lanean hastean, euskaraz naturaltasun osoz

### **3.2.-Fundamentos del nuevo período de planificación**

A continuación mencionaremos brevemente ciertos elementos que serán fundamentales en este período de planificación.

#### **Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales**

Es fundamental regular y fijar el uso de las lenguas en nuestra administración. En el último período de planificación se incluyeron, a modo de anexo al Plan, ciertos criterios lingüísticos. En el presente Plan se han vuelto a incluir con ciertas modificaciones, considerando que establecen las bases de la práctica lingüística de la administración. Al fin y al cabo, para que la administración funcione en ambos idiomas, es necesario que cada departamento y trabajador o trabajadora sepa en qué situaciones debe emplear las dos lenguas oficiales, es decir, cuándo, qué y con quién se ha de comunicar en euskera o en castellano.

Los criterios lingüísticos también incluyen criterios para la contratación. El objetivo de todo ello es que, al contratar, todos los órganos de contratación incluyan obligatoriamente las condiciones lingüísticas que se han de cumplir en las carátulas de los contratos administrativos y en el pliego de cláusulas administrativas específicas.

#### **Protocolos de acogida**

Es notorio que la edad media de las y los empleados de la Administración Pública es alta, y que en los próximos años se producirán numerosas incorporaciones.

Esta llegada de nuevas y nuevos trabajadores puede ser una oportunidad inmejorable para consolidar el uso del euskera que hemos estado promoviendo durante la última década, no sólo en lo que se refiere a la lengua de servicio sino, y en especial, para avanzar más decididamente en lo que respecta a la lengua de trabajo. La lógica lleva a pensar que la mayoría de las personas incorporadas serán más jóvenes y, en consecuencia, muchas de ellas se habrán formado en modelos de enseñanza en euskera. Dicho de otra forma, se prevé que se incorpore gente altamente cualificada para trabajar en euskera; por ello,



jardun dezaten, betiere, lan esparruan euskararen erabilera normalizatuari gagozkiola.

Egun, ordea, ailegaten ari diren askok maiz topatzen dituzte lana gaztelaniaz bakarrik burutzen duten lantaldeak, zenbait arrazoi tarteko, eta noski, joera naturala dagoenera lerratzea izanik, denbora laburrean galdu lezakete euskaraz eroso lan egiteko gaitasuna.

Helburua da datozen pertsona hauek euskaraz lanean hastea modu naturalean, gainera, pizgarria izan liteke lantaldearen hizkuntza ohiturak aldatzeko. Horretarako uste dugu Administrazioan lanean hasi bezain pronto hizkuntza-politikan hartutako erabakien berri eman behar zaiela, eta harrera protokoloa da bidea, gure ustez, biderik garrantzitsua.

Oso garrantzitsua da harrera-protokolo hori adostea eta ezartzea.

### **Borondatetik haratago**

Hizkuntza normalizazioan lortu nahi genukeen Herri-administrazioa da herritarren hizkuntza eskubideak guztiz bermatuko lituzkeena, pertsona elebidunez erabat osatuta egongo litzatekeena eta euskaraz ere lan egingo lukeena.

Hizkuntza eskubideak herritarrenak dira, eta herri-administrazioari dagokio eskubide horiek betetzea eta betetzen direla bermatzea. Beste era batera esanda: herri-administrazioak obligazioak dauzka eta bere langileak dira herri-administrazioaren betebeharrak gorpuzteko tresna.

Erabilera planetan aurreikusten diren ekintzak ez dira izan behar kasuan kasuko langilearen borondatearen ondorio, baizik eta erakundearen gogoetaren ondorio. Erakundeak erabaki behar du nork hartzen duen parte planean, nork norekin zertaz egin behar duen euskaraz, zer itzuli daitekeen eta zer ez, zein dokumentu estandarizatu behar den lehentasunez eta abar.

deberíamos establecer las bases para que, cuando esas personas comiencen a trabajar en la administración, encuentren cauces para desarrollar sus funciones con naturalidad.

Sin embargo, muchas de las personas que se incorporan actualmente se encuentran con equipos de trabajo que por una u otra razón desarrollan su labor en castellano, y dado que la tendencia de las nuevas incorporaciones es, lógicamente, la de integrarse en la sistemática actual, en poco tiempo corren el riesgo de perder su capacidad de trabajar en euskera.

El objetivo consiste en que estas nuevas incorporaciones comiencen a trabajar en euskera con naturalidad, pudiendo incentivar así el uso del euskera en su círculo laboral. Por ello, consideramos que nada más incorporarse a la Administración Pública han de ser informadas de las resoluciones adoptadas en el ámbito de la política lingüística, y para ello, el protocolo de acogida constituye una hoja de ruta, trascendental a nuestro entender.

Es por tanto importante acordar y aplicar un protocolo de acogida.

### **Más allá de la voluntad**

A través de la normalización lingüística pretendemos construir una Administración Pública que garantice plenamente los derechos lingüísticos de las personas, que esté conformada en su totalidad por personas bilingües, y que trabaje también en euskera.

Como se ha señalado anteriormente, los derechos lingüísticos corresponden a la ciudadanía, e incumbe a la Administración Pública materializar esos derechos y garantizar su cumplimiento. En otras palabras: la Administración Pública tiene obligaciones, y sus empleados y empleadas constituyen el instrumento que materializa esas obligaciones.

Las acciones contempladas en los planes de uso no han de ser consecuencia de la voluntad de la o el empleado de turno, sino fruto de la determinación de la institución. Es la institución la que ha de determinar quién forma parte del plan, quién ha de tratar con quién de qué en euskera, qué se puede traducir y qué no, qué documentos se han de estandarizar prioritariamente, etc.

## **Ezagutzetik erabiltzera**

Lehenengo eta behin esan behar dugu hizkuntza-eskakizunen sistemari esker bermatu dela, neurri handi batean, euskararen ezaguera EAEko Herri-administrazioen langileen artean. 1990. urtean, % 23,5 ziren euskara, gehiago edo gutxiago, ezagutzen zuten langileak; 2017an berriz, kopuru hori %70,72ra igo da.

Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar normalizazioaren benetako erronka erabilera bera dela. Onartu beharra dago euskararen ezagutza handitzeak ez duela ekarri euskara Administrazioan maila berean erabiltzea; aitzitik, konturatu gara beste faktore batzuk daudela, ezagutza handitzea bera baino askoz garrantzitsuagoak, zuzen-zuzenean erabileran eragiten dutenak: euskararen kudeaketa aurreratua eta zeharkakoa, liderren jarrera aktiboa, erabilera plan eraginkorrek egitea, hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideen betetze-maila eta abar.

## **Berariako hizkuntza-prestakuntza eta trebakuntzaren garrantzia**

Dagokien euskara maila izanik ere, argi dago herri-administrazioek laguntza eman behar dietela euskaraz ere lan egingo duten langileei, horiek behar bezala trebatzeko: hizkuntza-prestakuntza, trebakuntza, zuzenketa-zerbitzua, dokumentu estandarrik, zerrenda terminologikoak eta abar. Nolanahi ere, argi gera bedi gauza bat: kasu guztietan ziurtatu behar da badagoela erabateko lotura langileak planaren arabera landu behar duen komunikazioaren eta horretarako antolatutako ikastaro espezifikoaren artean. Ezin da ahaztu langilea prestatzen ari dela, ez euskara ikasteko, baizik eta emaitza jakin bat lortzeko: ahozko zein idatzizko komunikazioak euskaraz ere egiteko. Horixe, beraz, prestakuntza mota honen eraginkortasunaren erakusgarria: langileak, prozesua amaitutakoan, lanean euskaraz eroso egitea.

## **Prestakuntza orokorraren garrantzia**

Normalizazioari begira, dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea bezain eraginkorra da

## **Del conocimiento al uso**

En primer lugar, hay que señalar que, gracias al sistema de perfiles lingüísticos, se ha garantizado, en gran medida, el conocimiento del euskera entre las y los empleados de la Administración Pública. En 1990, sabía euskera, en un grado mayor o menor, el 23,5 % de la plantilla; en 2017, esa proporción ha alcanzado el 70,72 %. En cualquier caso, no podemos olvidar que el verdadero reto de la normalización estriba en el propio uso de la lengua. Hay que admitir que el incremento del conocimiento del euskera no ha conllevado en la misma medida su uso en la Administración Pública; por el contrario, hemos constatado que existen otros factores mucho más determinantes que el propio incremento del conocimiento y que afectan muy directamente al uso: la gestión avanzada y transversal del euskera, la actitud activa de las y los líderes, la elaboración de planes de uso eficaces, el grado de cumplimiento de los criterios de uso de las lenguas oficiales, etc.

## **Importancia de la formación lingüística específica**

A pesar de contar con el suficiente nivel de euskera, es evidente que las administraciones públicas han de apoyar a las y los empleados que han de trabajar también en euskera, para que se encuentren debidamente preparados, a través de la capacitación lingüística, la formación, el servicio de corrección, la estandarización de documentos, las bases de datos terminológicas, etc. En cualquier caso, ha de quedar clara una cuestión: en todos los casos ha de garantizarse la existencia de una conexión total entre la comunicación que la o el empleado ha de desarrollar según el plan y el curso específico organizado para ello. No puede obviarse que la o el empleado se prepara no para aprender euskera sino para obtener un resultado específico: para llevar a cabo sus comunicaciones orales y escritas en euskera. Esto es, por lo tanto, el rasgo diferencial de este tipo de preparación: que la o el trabajador sea capaz de realizar su tarea en euskera al finalizar el proceso.

## **Importancia de la formación generalista**

Recibir una formación generalista en euskera resulta tan valioso para la normalización como

prestakuntza orokorra euskaraz ere jasotzea. Neurriak hartu beharko lirateke prestakuntza hori euskaraz eskaintzen dela bermatzeko, eta erraztasunak eman behar zaizkie langileei euskaraz antolatzen diren ikastaroetara joan daitezen.

### **Euskarazko komunikazioak areagotzea**

Legearen ikuspegitik, bi hizkuntzak (euskara eta gaztelania) ofizialak dira, eta bi hizkuntza horietako edozeinetan idatzitako dokumentuek balio bera daukate. Hortaz, euskaraz lan egiteak ez dakar inolako arazo legalik. Udal Legeak bidea ematen du euskaraz lan egiteko, betiere herritarren hizkuntza eskubideak bermatzen badira.

Herritarrekiko komunikazioa herritarrek beraiek hautatzen duten hizkuntzan izan beharko da; herri-administrazioen artekoan, berriz, herri administrazioek hautatzen duten hizkuntzan.

Administrazioa euskaraz lan egiteko bidean jartzeak normalizaziorako bidean jartzen gaitu, eta txikitu egiten du bi hizkuntza ofizialen erabileren arteko desoreka erreala, legearen ikuspegitik ez dagoena.

Atal bateko lana antolatzerakoan, hizkuntzak ere kontuan hartu beharreko osagaia izango da, erabaki beharko baita zer egin euskaraz, zer gaztelaniaz, zer ele bietan, nork egingo duen bata eta bestea, nola banatuko den lana, etab.

### **Ahokotasuna**

Idatzizko komunikazioak ahaztu barik, ahozko komunikazioek izan behar dute lehentasuna plangintzaldi honetan, horiek finkatu ahala, idatziz euskaraz gehiago lan egitea ekarriko dutelako.

VI. Plangintzaldian, euskara ahozko lan-hizkuntza gisa bultzatu beharra dago: euskara ahoz gero eta gehiago erabiltzea sustatu lankideen artean, lan-bileretan, egoera informaletan... Hizkuntzarekiko segurtasuna lortzen da mintzapraktikaren bidez, eta horrek isla izango du, zalantzarik gabe, idatzizko produkzioan. Berebiziko garrantzia izango du erakundeen planifikazioan ahokotasunari

la propia acreditación del perfil lingüístico. Se deberían adoptar medidas para garantizar que dicha formación se reciba en euskera, y se han de dar facilidades a las y los empleados para que puedan asistir a los cursos impartidos en euskera.

### **Aumento de las comunicaciones en euskera**

Desde el punto de vista legal, ambas lenguas (euskera y castellano) son oficiales, y los documentos redactados en cualquiera de ellas tienen idéntico valor. En consecuencia, trabajar en euskera no supone ningún problema legal. La Ley Municipal abre las puertas a que se trabaje en euskera, siempre que se respeten los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

La comunicación con la ciudadanía habrá de efectuarse en la lengua elegida por las y los usuarios; la comunicación interinstitucional, por su parte, se realizará en la lengua que escojan las instituciones.

Encaminar la Administración hacia el trabajo en euskera nos sitúa en la senda de la normalización y reduce el desequilibrio real existente en el uso de las dos lenguas oficiales, el cual no es tal desde el punto de vista legal.

Así, las lenguas serán también cuestión a tener en cuenta a la hora de organizar las tareas de cada ámbito, ya que habrá que determinar qué se realiza en euskera, qué en castellano, qué en ambas lenguas, quién ha de llevar a cabo una u otra tarea, cómo se ha de distribuir la labor, etc.

### **Comunicación oral**

Sin dejar de lado las comunicaciones escritas, durante este período de planificación la prioridad ha de situarse en las comunicaciones orales, porque el afianzamiento de estas conllevará el aumento de las comunicaciones escritas.

Durante el VI Período de Planificación es preciso impulsar el uso oral del euskera como lengua de trabajo: promover un uso creciente de la lengua en las comunicaciones orales entre las y los empleados, en las reuniones de trabajo, en situaciones informales... La seguridad en el uso del idioma se logra a través de la práctica oral, y eso tiene un reflejo indudable en la producción escrita. El

begira egindako planteamendu orokorrak. Ez behar puntual bati erantzuteko, baizik eta erakundeak ahoz euskaraz jarduteko eman beharreko pausoak antolatzeari begira: jendaurreko postuen jarduna, herri-administrazioen arteko jarduna, teknikariek jendartean eman beharreko azalpenak, izaera informaleko ekintzak eta abar.

## Dokumentuen estandarizazioa

Dokumentu estandarizatuen arloan lan asko egin bada ere, luzea da geratzen zaigun bidea eta ez soilik euskaraz; gaztelaniaz ere badago zer eginik, gutxiago bada ere. Euskara lan-hizkuntza ohikoa bihurtu ahala, honen beharra nabariagoa egingo da.

Dokumentuen estandarizazioaren bigarren ikuspegia da kalitatezko komunikazio idatzia sustatzea Administrazioan; hau da, testu zuzenak, jatorrak, egokiak eta argiak. Hona hemen kalitatezko testuak idazteko irizpide batzuk:

- Helburua komunikatzea da: hartzaileak lehen entzunaldi edo irakurraldian ulertu behar du esaten zaiona. Testuak egokia izan behar du komunikazioaren ikuspegitik.
- Testuak egitura logikoa izango du, eta egitura hori agerian geratuko da era honetako estrategiak baliatuta: izenburuak eta azpi-izenburuak, ideiak paragrafoka, lege-aipamenak oin-ohar modura...
- Testuak zuzena izan behar du.
- Hizkuntza bakoitzak badu bere esateko era: errespetatu. Nolanahi ere, herri-administrazioko hizkera berri, modernizatu eta herritarrengana hurbildu beharra dago.
- Idazkiaren diseinua zaindu, irakurgarritasuna bermatzeko.

## Itzulpen kopurua gutxitzea

Herri-administrazioan orain arte egon den dinamika orokorragatik, joera nagusia izan da testu gehienak gaztelaniaz sortu eta gero euskarara itzultzerantz bidaltzea.

planteamiento general acerca de la comunicación oral que se haga en la planificación de las diversas instituciones adquiere así una importancia crucial. No se trata de responder a una necesidad puntual, sino de organizar los pasos que la institución ha de dar para comunicarse oralmente en euskera: en la práctica de los puestos de cara al público, en las relaciones interinstitucionales, en las informaciones que los técnicos han de dar en público, en las actividades de carácter informal, etc.

## Estandarización de documentos

Aunque se haya realizado un gran esfuerzo para la elaboración de documentos estandarizados, queda mucha tarea por delante. Y no sólo en euskera, sino también, aunque en menor medida, en castellano. En tanto que el euskera se convierta en lengua de trabajo, esta necesidad va a ser más evidente. El segundo aspecto a destacar de la estandarización de documentos es el fomento en la Administración de una comunicación escrita de calidad, es decir, con textos correctos, comprensibles, precisos y claros. He aquí algunos criterios para redactar textos de calidad:

- Se trata de comunicar: la o el destinatario ha de entender a la primera lo que se le hace saber. El texto debe ser adecuado desde el punto de vista comunicativo.
- El texto ha de guardar una estructura lógica, y dicha estructuración se hará patente mediante estrategias como el uso de titulares y subtítulos, ideas por párrafos, citas legales como notas a pie de página...
- El texto tiene que ser correcto.
- Cada lengua tiene su manera de exponer las cosas: hay que respetarla. En cualquier caso, es preciso renovar, modernizar y acercar a la ciudadanía el lenguaje administrativo.
- Hay que cuidar el diseño de los escritos para garantizar su legibilidad.

## Reducción del número de traducciones

Por la dinámica que ha existido hasta el presente en la Administración Pública, la tendencia dominante ha sido y sigue siendo redactar la mayoría de los textos en castellano

Joera horrek arazoak sortzen ditu: alde batetik, ez da behar bezala aprobetxatzen langileen hizkuntza-gaitasuna (horrek dakarren gastuarekin); eta, bestetik, itzulpen ia guztiak norabide berean egiten direnez (gaztelaniatik euskarara), garbi dago erdal testuak markatzen duela maiz euskal itzulpenak izango duen egitura, estiloa eta itxura.

Hori saihesteko, kudeaketa aurreratuaren bidez atal bakoitzean egindako azterketa komunikatiboak esango digu zein den bertako langileen hizkuntza-gaitasuna, zein komunikazio mota sortzen dituzten, norekin, zein maiztasunez eta abar. Diagnostiko hori egin eta gero, atal bakoitzak erabakiko du atal horietan zer egingo den euskaraz, zer ele bietan eta zer gaztelaniaz, eta batez ere, zer egin daitekeen euskaraz itzulpenetara jo gabe. Dokumentuak itzultzerantz bidaltzetik euskaraz sortzerantz jauzia egingo duten langileei laguntza guztia emango die erakundeak, euren lana eroso egin dezaten. Helburua zein den argi dago: gure hizkuntza-gaitasuna baliatzea, gaur egungo itzulpenen kopuru handia ahalik eta gehien murrizteko.

Aipatutako arazo horiekin batera, beste arazo batzuk ere sortu ohi dira itzulpenen kudeaketari dagokionez:

- Zenbait dokumentu estandarizatuta egon arren, ez dira behar bezain ezagunak, eta itzultzerantz bidaltzen dira.
- Itzultzeko agindu horiek, askotan, kontrol handirik gabe egiten dira.
- Dokumentu bera askotan bidaltzen da itzultzerantz, hainbat zerbitzutatik gainera.
- Aldaketa txiki baten aitzakiatan, dokumentu osoa bidaltzen da itzultzerantz, horrek dakarren gastuari erreparatu ere egin gabe.

Horri aurre egiteko, hona hemen irizpide-proposamen batzuk itzulpenak kudeatzeko:

- Lanpostuak derrigortasuna izanik, lanpostu horri dagozkion ohiko komunikazioak langileak berak sortu beharko lituzke euskaraz, itzultzerantz bidali gabe. Hori bai, bere erakundeak laguntza guztia emango dio lan hori errazteko (zuzenketa programak, batez

etxeak) eta itzultzerantz bidaltzeko.

y traducirlos luego al euskera. Esa tendencia ha creado problemas: por una parte, se desaprovecha la capacidad lingüística de las y los empleados (con el subsiguiente gasto); y, por otro, dado que casi todas las traducciones se realizan en el mismo sentido (del castellano al euskera), queda patente que el texto en castellano determina el estilo estructural y la prestancia de la traducción al euskera.

Para solventar esos problemas, el análisis comunicativo realizado en cada área a través de la gestión avanzada nos dará a conocer cuál es la capacitación lingüística de las y los empleados, qué tipos de comunicación generan, con quién, con qué frecuencia, etc. Una vez efectuado el diagnóstico, cada dirección determinará qué se ha de redactar en euskera en esas áreas, qué en ambas lenguas y qué en castellano y, particularmente, qué se puede redactar en euskera sin recurrir a la traducción. Para que efectúen su tarea con comodidad, la institución proporcionará todo su apoyo a las y los empleados que han de dar el salto a redactar en euskera los documentos que antes se enviaban a traducir. El objetivo salta a la vista: activar nuestra capacidad lingüística para reducir en lo posible el elevado número de traducciones existentes en la actualidad.

Junto a esos problemas principales, existen otras complicaciones en lo que respecta a la gestión de las traducciones:

- Aunque determinados documentos estén estandarizados, no son lo suficientemente conocidos y se envían a traducir.
- Las órdenes de traducción, con frecuencia, se emiten sin mayor control.
- Así, puede que diferentes servicios remitan el mismo documento a traducir varias veces.
- O que se haga traducir un documento íntegro al que se han hecho variaciones mínimas, sin reparar en el gasto que ello conlleva.

Para hacer frente a esas situaciones, se proponen aquí ciertos criterios para la gestión de las traducciones:

- Si el puesto de trabajo conlleva preceptividad, las comunicaciones habituales de dicho puesto han de ser redactadas en euskera por la o el empleado, sin recurrir a la traducción. Eso sí, el Departamento le ha de proporcionar todo su apoyo para facilitar esa tarea (especialmente,

ere). Nolanahi ere, “egoera bereziak” gertatuko balira (ezohiko dokumentuak, testu konplexuak, presa handikoak...), itzulpenetarako bidea zilegi litzateke.

- Testu berdina (edo oso-oso antzekoa) ez da bi aldiz itzultzerara bidaliko, nahiz eta prozesuan zehar testuak aldaketak izan.
- Komenigarria litzateke erakunde bakoitzak neurriak ezartzea, itzultzerara bidaltzen diren dokumentuak kontrolatzeko, helburu nagusia begi bistatik galdu barik: itzulpen kopurua murriztea.
- Itzultzaileek eta euskara teknikariek estandarizatutako dokumentuak langileen eskura jarri beharko lirateke, horiek erabil ditzaten itzulpenen partez.

#### **Koordinazioaren eta komunikazioaren garrantzia**

Gero eta garbiago dago euskararen normalizazio prozesua herri-administrazioetan ezin egon daitekeela erakunde bakar baten bizkarrean; aitzitik, herri-administrazio guztiguztien lan-jardun bateratuak beharrezkoak dira, euskararen erabilerak gora egin dezan.

Horretan dabilta Alkarbideren lan-mahaiak, eta Bizkaiko trebatzaileen lantaldea (Tregagune). IVAP, HPS eta BFAtik proposatzen diren ekimen bateratuak ere kontuan hartzekoak izango dira.

Horrez gain, garrantzitsua da euskara normalizatzeko prozesuan hartzen diren erabakiak, txertatzen diren prozedurak eta lortzen diren aurrerapausoak **komunikatzea**. Horretarako, komunikazio bide erraz eta eraginkorrek adostu beharko dira.

Udal langileak eta arduradun politikoak Euskara Planean egiten direnen jakitun izateaz gain, eragile aktibo ere izatea bilatzen da horrekin.

#### **4.-DIAGNOSTIKOA ETA HELBURUAK**

Atal honetan BIKAIN ziurtagiriaren ebaluazio-sistema erabiliz, alde batetik, aurreko Plangintzaldiaren amaierako egoera zertan

programas de corrección). En cualquier caso, si se produjeran «situaciones especiales» (documentos inhabituales, textos complejos, muy urgentes,...), se podría recurrir a la traducción.

- Un mismo texto (o muy similar) no se podrá remitir dos veces para su traducción, aunque en el transcurso del proceso el texto sufra variaciones.
- Sería conveniente que cada entidad arbitrara medidas para controlar los documentos que se remiten para su traducción, sin perder de vista nuestro objetivo: reducir la cantidad de traducciones.
- Así, para evitar traducciones, se proporcionarán a las y los interlocutores documentos estandarizados por las y los traductores y técnicos de euskera.

#### **Importancia de la coordinación y comunicación**

Resulta cada vez más evidente que el proceso de normalización del euskera en las administraciones públicas no puede recaer exclusivamente en una única institución; al contrario, se precisa la actuación conjunta de todas las administraciones para incrementar el uso del euskera.

En ese empeño, se reúnen periódicamente las mesas de trabajo de Alkarbide y Tregagune (grupo de trabajo de los/las trebatzailes de Bizkaia). Se tratará de tener en cuenta, asimismo, las iniciativas conjuntas

Además, en lo que respecta al proceso de normalización lingüística del ayuntamiento, es importante **comunicar** los acuerdos alcanzados, los procesos integrados y los avances obtenidos. Para ello será preciso acordar sencillos y eficaces canales de comunicación.

Con todo ello, no solo se busca que el personal trabajador municipal y las y los representantes políticos tengan conocimiento del plan de euskera, también se trata de que sean agentes activos de dicho plan.

#### **4.-DIAGNÓSTICO Y OBJETIVOS**

En este apartado utilizando el sistema de evaluación del certificado BIKAIN, por un lado, daremos cuenta de la situación actual del uso

den ikusiko dugu, eta bestetik, egoera horretatik abiatuta eta adierazle berberak erabiliz VI. Plangintzaldirako helburuak zehaztuko ditugu.

